

ALKATE DEKRETUA

Nik, Izaro Elorza Arregui Oñatiko Alkatea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz ondorengo agintzea erabaki dut:

Artikulu hauetan xedatutakoa betetzeko: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. eta 46. artikulua; Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea; eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 79., 80 eta 82. artikulua.

2021eko abenduaren 16an onartutako saioen egutegia ikusita.

Alkate-udalburua naizenez, bai eta toki-araubidea arautzen duen indarreko araudiak ematen dizkidan ahalmenak ikusita,

Erabaki dut:

Udalbatzaren ohiko bilkurarako deia egitea. Bilkura hori udal honetako Osoko Bilkuren Aretoan egin beharko da, 2022ko azaroaren 24an, 18:30etan, lehen deialdian, eta bi egun geroago eta ordu berean, bigarrenean. **Gai-zerrendako gai hauek aztertuko dira:**

1. Onartzea, hala badagokio, 2022-10-27ko ohiko osoko bilkuraren akta, (8.2022).
2. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: 2022rako soldata igoera gehigarria onartzea, pertsonal eta barne antolakuntzako informazio batzordean diktaminatua 2022ko azaroaren 7an.
3. Onartzea, hala badagokio, Alkateak egindako proposamena: Lur Nogales Garcíaren eskaera onartzea Olaburuko lokalaren kontratua luzatzeko, sozioekonomia eta turismo informazio batzordean diktaminatua 2022ko azaroaren 7an.
4. Onartzea, hala badagokio, Alkateak egindako proposamena: Gipuzkoako Botikarien elkargoaren eta Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena onartzea, etxez etxeko laguntza zerbitzuko eta gizarte zerbitzuek artatuko pertsonen artan botiken erabilera optimizatzeko programa garatzeko, ongizate zerbitzu informazio batzordean diktaminatua 2022ko azaroaren 15ean.
5. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko Eskola Kirola eta Hezkuntza elkarte eta Oñatiko Udalaren arteko hitzarmena eta diru-laguntza izendun eta zuzena onartzea, kirol informazio batzordean diktaminatua 2022ko azaroaren 15ean.
6. Hala badagokio, presako gaiak.
7. EH Bildu eta EAJ-ren adierazpen instituzionala: Sexu-jazarpena eta emakumeen aurkako beste sexu-indarkeria mota batzuk espazio publikoetari buruzkoa, 2022ko azaroaren 25ko eguna dela eta.
8. Hala badagokio, larrialdi-mozioak.
9. 2022ko urriaren 21etik 2022ko azaroaren 18ra bitartean eman diren alkate dekretuen berri ematea, 1144 zenbakitik 1260 zenbakira.
10. 2022ko Toki Gobernuako Batzordeen akten berri ematea (25., 26. eta 27. saioak).
11. Galderak eta eskaerak.

Jakinaraz bekie berehala Udalbatzako zinegotzi guztiei, eta ohartarazi Idazkaritzan eskura dutela gai-zerrendan jaso diren aztertu beharreko gaiei buruzko dokumentazioa, eta, arrazoi justifikaturen bat dela-eta bilkurara joaterik ez badute, alkate-udalburuari jakinarazi beharko diotela, behar besteko aurrerapenaz.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut

Oñatin, 2022eko azaroaren 21ean

Alkateak

Izaro Elorza Arregui